

Emakumeek esfera publikoan parte hartzerakoan dituzten beldur eta oztopoak identifikatuz

- Hauei aurre egiteko heziketak, sentsibilizazioak edo erreferenteek duten garrantzia azpimarratzen da
- Eragin #Plazandre txostenak ia 40 emakume gazteren bizipenak eta esperientziak biltzen ditu

Bilbon, 2019ko otsailaren 5ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) emakumeek esfera publikoan parte hartzerakoan dituzten oztopoak eta arazoak identifikatzen dituen **Eragin #Plazandre txostena** aurkeztu du gaur. Proiektua Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Emakunderen laguntzarekin eraman da aurrera.

2018 amaieran ospatutako jardunaldian azaleratu zen bezala, “emakume bakoitzak bizipen anitzak izan arren, bada denek amankomunean bizi duten prozesu bat: gizonak imitatuz sartzen dira espazio publikora”. Izan ere, historikoki, “**patriarkatuak emakumeak eremu pribatuan mantendu izan ditu**”.

Egoera horren aurrean, Giza Liburutegiak metodologia baliatuta eta egun EAEn esfera publikoan diharduten emakumeen esperientzietatik abiatuta, bertan egotearen “**beldur eta oztopoei**” buruz hitz egin zen, ostean hauei irtenbideak emateko eta hobekuntza-proposamenak mahai-gaineratzeko.

Espazio publikoak “erosoagoak” izan daitezen **tresna posibleak biltzen** ditu txostenak: heziketa, sentsibilizaziotik abiatuz emakumezko erreferentziak sortzea, politika publikoak garatzea, saretzea eta parte hartzeko modu berriak aitortzea.

2019an zehar EGKren asmoa txostenaren “**kontrastea**” egitea da eragile ezberdinekin, “egindako **diagnostikoa osatu** eta mahai-gainean jarritako **hobekuntza-proposamenak gizarteratzeko**”. Era honetara, parte-hartzean genero-ikuspegia txertatzea espero da, denon artean identifikatutako oztopoak eraitsi eta beldurrak deseraikitzeke.